

# Proiektuetarako jarduerak | 2. Blokea : Edukiak sortzea

Lehen Hezkuntza. 9 - 12 urte

## Europa News



**Lehen  
Hezkuntza**  
9 - 12 urte



**Maila**  
Ertaina



**Denboralizazioa**  
4 - 5 saio



**Kideak**  
2 - 4 kide

### JARDUERAREN DESKIPZIOA

Jarduera honetan, albistegi bat egingo dugu eTwinning proiektuko kide diren ikasleen artean. Ikasleek berriak sortuko dituzte eta, amaitzeko, bideokonferentzia bat egingo dute albistegia bailitzan.

### JARDUERAREN XEDEA

Proiektuaren kideen artean jarduera kolaboratibo eta interaktibo bat egitea, albistegi bat eginez.

### JARDUERAREN GARAPENA

#### 1. Fasea: Prestatzea



Web kamera duen ordenagailua, bozgorailuak eta mikrofonoa. Ahal bada, kanoia edo arbela digitala pantaila handian ikusteko.

**Beharrezkoa:** Ordenagailuak ikerketak egiteko eta ikasleek taldean lan egitea.

### 1. urratsa:

Dokumentu kolaboratibo bat sortuko da horma batean edo DOC batean. Bertan, albistegiaren egitura eta atalak erabakiko dira. Irakasleek ikasleen ideiak eta ekarpenak kontuan hartuko dituzte horretarako.



### 2. urratsa:

Albistegiaren egitura finkatuta dagoenean (gertakariak, kirolak, kultura, nazioarteko albisteak, etab.), ikasleen nazioarteko taldeak sortuko dira. Haiek berriak idatziko dituzte.

Izena	1. ekipoa:	2. ekipoa:	3. ekipoa:	4. ekipoa:	5. ekipoa:	6. ekipoa:	6. ekipoa:
Kideak	Berrienak	Nazioartekoak	Europa	Kultura	Bitxikeriak	Hezkuntza	Kirolak
Spain	Miguel, Carlos Lucía	Juani, Pablo, Lucas	Pedro, Antonio, Alejandra	Pedro, Julia, Teresa	Patricia, Belén, Javier	Alicia, Rubén, Miguel	Clara, Fran
Portugal	Joao , Rui, Paola	José, Vicenta	Paulo, Miguel	Ana Francisco	Servando, Ana Maria	Cristina, Felipe	Nuno , Rute

Italy	Francesco, Laura	Piero, GianLuca	Helena, Carla	Alda Amadeo	Carina Nicola	Alessandra Renzo	Mariola Marco
France	Nicolle, Pierre	Dennis, Paul	Arleth, Noe, Kalet	Noelia, Brandon, Macey	Alizeé, Lebron, Bertran, Amelie	Paulette, Soren, Thierry	Francoise Renardo

### 3. urratsa:

Talde bakoitzarentzako dokumentu bat sortuko da eta haien artean berriak idatziko dituzte.



## 2. Fasea: Praktikan jartzea

### 4. urratsa:

Berriak idatzi ondoren, albistegi-bideokonferentzia bat antolatuko dugu. Talde bakoitzak idatzi dituenak azalduko ditu. Interesgarriagoa izan dadin, ikasleek ezin dituzte haien lurraldeari buruzko albisteak kontatu, kide den lurralde batenak kontatu beharko dituzte.



Bideokonferentzia tresna eTwinning proiektuetan

### 5. urratsa:

Ikastetxeren batek ahal badu, bere albistea Croma-rekin grabatuko du. Horretarako, ekipoak erabil daitezkeen fondo eta irudiak bilatuko ditu.



### 6. urratsa:

Bideokonferentzia grabatzeaz gain, Adobe Connect-ekin ikasleen erakusketak grabatuko dira. Croma-rekin grabatu direnak ere batu daitezke. Era horretan, amaierako produktua osatuko da.



### **7. urratsa:**

Azken dokumentua bi grabazioak izango dira: Adobe Connect-ekin egindakoa eta bestela egiten direnak. Material guztia proiektuaren TwinSpacera igoko da.

Prozesu osoan zehar argazkiak atera daitezke eta ikasleen lanaren pantaila-argazkiak egin. Gero, proiektuaren TwinSpacera estekatuko dira. Oso interesgarria da proiektuaren egunerokoan kide guztiek jarduera nola garatu den komentatzea.



### **PRODUKTUA(K)/AURREIKUSITAKO EMAITZA(K)**

Ikasle eta irakasleen dokumentu kolaboratiboak, berrien bideoak, Adobe-n egindako grabazioak.

### **TWINSPACEKO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK**

- Google Drive: lanerako dokumentuak online editatu eta partekatzea ahalbidetzen duen tresna kolaboratiboa. <https://www.google.es/intl/es/docs/about/>
- Croma: Grabazio batetik kolore bat (urdina edo berdea) atera eta irudi edo bideo batez ordezkatzen duen ikus-entzunezko teknika.
- Notepad: Era kolaboratiboan online idazteko tresna. <https://anotepad.com/>
- Linoit: Tresna kolaboratibo sinplea arbel edo kortxo birtualak sortzeko eta haietan post-it gisako oharrak jartzeko. <http://en.linoit.com/>
- Bideokonferentzia eTwinning live edo TwinSpace bidez.
- TwinSpaceko foroak eta txata.